

## ATOMO -TAULA PERIODIKOA- LOTURA KIMIKOA ERREPASOA

- 1.- Honela daude kokatua taula periodikoan A, B eta C elementuak:
  - A elementua: laugarren periodoan eta IA (1) taldean (metal alkalinoa)
  - B elementua: hirugarren periodoan eta VIA (16) taldean (anfigenoa)
  - C elementua: laugarren periodoan eta VIIA (17) taldean (halogenoa)Aurreko informazioaren arabera, egin itzazu jarduera hauek:
  - a) Idatzi itzazu elementuen konfigurazio elektronikoa
  - b) Azter itzazu zer balentzia ioniko eduki ditzaketen
  - c) Izenda itzazu elementu horiek beren artean sor ditzaketen bi konposatu ioniko.
  
- 2.- Demagun (X) 15 eta (Y) 17 zenbaki atomikoko elementuak ditugula
  - a) Idatzi haien konfigurazio elektronikoak, kokatu taula periodikoan eta azaldu zein elementu mota den.
  - b) Zer ioi osatuko dituzte? Arrazoitu
  - c) Azaldu zer lotura mota eratuko duten artean (ionikoa, kobalente, metalikoa), eta marraztu bi elementu horiek osatutako konposatu baten Lewis-en egitura.
  
- 3.- a) Ne eta  $O^{2-}$  espezie kimikoak emanda, azter ezazu baieztapen hauek okerrak diren. Arrazoitu.
  - a) Bi espezie kimikoek elektroio kopuru berdina dute
  - b) Bi espezie kimikoek protoi kopuru berdina dute
  - c) Oxido ioiaren erradioa handiagoa da neon atomoarena baino.
  - d) Zer lotura mota izango du CaO formulako konposatua?Datuak: O(Z=8)    Ne(Z=10)    Ca(Z=20)
  
- 4.- a) A, B, C, D elementuen zenbaki atomikoa 19, 30, 35, 36 dira hurrenez hurren:
  - Kokatu taula periodikoan: taldea, periodoa, izena (posible bada).
  - Ordena itzazu erradio atomikoaren arabera eta elektronegatibitatearen arabera. Azaldu.b) Zer da ionizazio potentziala? Nola aldatzen da taula periodikoan? Zergatik?. Ordenatu aurreko elementuak ionizazio potentzialaren arabera txikienetatik handienara.